

Zubiuko
urtekarria
2025/26

 Irurako
Ikastola *

 *

ANOETAKO
HERRI IKASTOLA

IKASTURTE BERRIARI ONGI ETORRIA

2025-2026ko ikasturteari hasiera eman genion bi Ikastoletan. Lehen egunetan, egokitze fasean izan ginen denok, Haur Hezkuntzakoak familiarizazioaldian eta Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak probentzio saioetako dinamika ezberdinetan.

2 urteko ikasle berriek, etxekoan babesean ezagutu zuten zegoen Ikastola; Haur Hezkuntzakoak familiarizazioaldian izan ziren, bakoitzaren denborak errespetatuz eta modu goxoan egokituz; LH eta DBHko etapetan, lehenengo astean Ikastolan bertan eta baita inguruko herrietan dinamikak eta irteerak ere burutu zituzten.

Ikaskide eta irakasleen arteko harremanak sendotzeko asmoz aritu ginen.



GURASO BILERAK

Iraila amaieran eta urri hasieran burutu ziren urteroko ikasturte hasierako guraso bilerak. Tutoreak, gelako funtzionamendua azaltzeaz gain, urtean zehar ikastolan aurrera eraman diren proiektu eta ekintza nagusiak ere aurkeztu ziren.

IKASTOLEN HASIERAKO EKITALDIA

IKASTOLAK, aurrerantzean ikastolen mugimendua izendatzeko erabiliko zen markaren hitza aurkeztu zitzaigun. Ikastolen ikasturte hasierako ekitaldia irailaren 25ean Bergarako Seminarixoan ospatu zen. Ikastola guztietako ordezkariak bertaratu ziren ekitaldi garrantzitsu eta esanguratsu horretara.

Erronka berriak aipatu ziren ekitaldian, eta haiei erantzuteko gogoetak eta egitasmoak: inklusiotik ekitaldian jautsi egiteko egitasmoa; euskararen erabilera indartzekoak; digitalizazioari neurria hartzekoa; pertsona, gizakia, hezkuntzaren erdian jartzen duen eredu batera jautsi egitekoa.



ESKOLA KIROLA LEHENESTEKO DEI BATERATUA

Irailaren 30ean amaitu zen Eskola Kirolan izena emateko aukera, eta eredu horren alde egin zuten udalek, ikastetxeek eta Eskola Kirola programa garatzen laguntzen duten ikastetxetako koordinatzaileek. Eskola Kirolak dituen onurak azpimarratu zituzten, besteak beste.



GURE HAURRAK ERE BADIRA EKIMENAREKIN BAT

Zoritzarrez, bukatu berri den ikasturtean ere *Gure haurrak ere badira* ekimenak ekintzak antolatzen jarraitzeko beharra sentitu zuen. Palestinako herrialdeak pairatutakoen aurrean protesta egiteko ekimen horiek martxan jarri ziren Anoeta eta Irurako Ikastoletan.

Urriaren zehar ostegunero Ikastolaren atarian bildu ginen palestinar herrialdeari gure atxikimendua azalduz eta urriaren 25ean Bilbon egindako ekimen nazionalen parte hartzera animatuz, kamiseta solidarioak ere saldu ziren.



ANOETA ETA IRURAKO IKASTOLETAKO LHKOEN ARTEKO KIDETZEAK

Ikasturte hasieran, familiarizazio eta kidezeen garaian, bi ikastolen arteko harremanari tarte goxoak eskaintzen dizkiegu. Horretarako, urteko lehen saioak antolatu ziren urrian. LHko maila bakoitzak elkartu eta ikasleen arteko harremanak esanguratsuagoak izateko jolasak prestatzen ziren. Ondo pasatuz, elkarren berri izan eta elkar hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen diegu horrela.




HH3koak ERLEEN MUNDU ZORAGARRIA EZAGUTZEN

Egun zoragarria pasa zuten HH3ko ikasleek Iturranan Parketxean, erleen mundu harrigarria ezagutzen.

Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako laguntxoak elkarrekin egin zuten irteera.

Erleak nola bizi diren, nola antolatzen diren eta zergatik diren hain garrantzitsuak gure planetarentzat ikasteko aukera izan zuten. Horrez gain, ezta dastatu, argizariaren usaina sentitu eta kandela bat egiteko aukera ere izan zuten.



SEASKAKO EGUTEGIAK IPARRALDEKO IKASTOLEN ALDE

Aurten ere ahalegin berezia egin genuen Iparraldeko ikastolei laguntzeko, euskara ofiziala ez den lurraldeotako Ikastolen egoera oso zaila baita. 2026ko egutegiaren orriak, Ziburuko « Kaskarotenea » eta « Piarres Larzabal » ikastoletako ikasleen marrazkiekin apainduak izan ziren. Egutegien salmenta Iruran urrian eta Anoetan azaroan izan ziren. Irurako Ikastolak Seaskari eskatu beharreko egutegi kopurua esanguratsua izan zedin informazioa sare sozialetan ere zabaldu zen.



IKASTOLETAKO JAIK, KILOMETROAK ETA NAFARROA OINEZ



Urriaren 5ean Kilometroak jaia ospatu zen, "SALTO-SALTOKA" lelopean, Elgoibarren. Urriaren 19an aldiz, Atarrabian izan zen topaketa gunea. Ikastolen aldeko jai horietan parte hartzera animatu genuen jendea eta urtero bezala Galtzaunditik autobusak antolatu ziren.

**URRIAK 25
BILBORA!**

AUTOBUSA



**URRIAREN 25eko
LANUZTEAREKIN BAT**

Bi Ikastoletako langileek Palestinaren genozidioa gelditzeko aldarriarekin bat egin genuen. Horren ondorioz ez zen jarduera akademikorik izan eta bai, ordea, zerbitzu minimoak.



GAU BELTZA, OSPAKIZUNAK BI IKASTOLETAN

Urriaren 31n Gau Beltza ospakizunari tartea egin zitzaion. Iruran mozorroak eta apaingarriei denbora eskaini zitzaion. Ikusi [bideoa](#). Gero, "Irura Bizi" taldeak programa polita eraman zuten aurrera: Photocall-a eta gaztain jatea, goxoki bilketa, zezen suzkoa, Dantza Bertikalak Geurera ikuskizuna eta barrikotea plazan. Bukatzeko, Aiduru taldea Ostuan izan zen.

Bi ikuspegiak jorratu ziren Anoetako Herri Ikastolan. Lanketa ezberdinak aurrera eman ziren maila guztietan: hosto oroigarriaren ekimena, gaiaren inguruko abesti eta dantzak ikasi, kalabaza bizkotxoak egin, Gau Beltzaren performance patioan, Gau Beltza ihesi scape room, besteak beste.. Plazan ipuin kontalaria, ikastolako ikasleek landutako kantu, olerki eta dantzak, eta gaztaina jatea izan zen. Argazkiak [hemen](#)



ERRIGORA KANPAINA MARTXAN JARRI GENUEN BI IKASTOLETAN

URRIAREN 23an, jarri zen martxan Errigoraren udazkeneko kanpaina: **EZINBESTEKOAK EUSKARARENTZAT AGERREAN** lelopean. Azken urteetan bezala, 3 saski eskaini ziren.

Errigora proiektu herrikoi bat da, Euskal Herri mailako auzolanaren bidez, Nafarroa erdi eta hegoaldeko (Ager zonaldeko) euskalgintza eta ekoizpena sustatzen duena. Helburu nagusi horiek lortzeko urtero bi kanpaina burutzen dira: udazkenean *Euskarari Puzka* eta udaberrian *Eskutik Eskura*



HH1eko HAURRAK IZAR PARKEAN IZAN DIRA

Jolas parkean gure bi Ikastoletako ikasleek goizpasa atsegina eman zuten bertan. Primerako goiza pasa zuten txirrista eta pelota tartean.

EKIN, TOLOSALDEAKO PROIEKTUAK GOZATZEN

Tolosaldeko Mankomunitateak eskaintzen duen programan parte hartu zuten Iruran LH6koek eta Anoetan LH5ekoek. Berziklatzearen garrantzia aztertu zuten eta praktikara eramane zuten ekintza bera.

Egunerokoan aurki ditzaizkete zalantzak argitzeko balio izan zien. Ondoren, bi ikastoletako kanpo espazioetan jolastuz ikasten jarraitu zuten.



"Bagatoz, inklusiotik ekitatera"

IKASTOLEN AURTENGO JARDUNALDI PEDAGOGIKOETAN IZAN GARA

Gero eta anitzagoa den gure gizartean, ikasle guztientzako kalitatezko eskolaren ildo nagusiak aztertu ziren. Inklusioa praktikara eramateko erronkak eta estrategiak aztertu zituzten. Ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko ikuspegi sistemikoa landu zen, antolaketa eta curriculum berrikusiz. Justizia soziala eta ekitatea hezkuntzaren ardatz gisa nabarmendu ziren. Metodologia kolaboratiboak eta aktiboak baliatu ziren ikasleen ahalduzkoa sustatzeko. Gehiago irakurri [hemen](#)

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN EGUNA

Anoetako Herri Ikastolan Emakumeen aurkako indarkeria kontrako Nazioarteko Egunaren aitzakiarekin lanteka bateratua egin zen. Biolentzia adierazpen bakoitza Icebergaren dagokion zatian kokatzea izan zen. Iceberg horrek hiru zati ditu biolentzia motaren arabera: agerikoa, ez hain agerikoa eta ezkutukoa. Hainbat bideo ere ikusi zuten gaiaren sarrera modura.

Irurako ikastolako LH4, 5 eta 6ko geletan egunaren inguruko hausnarketa egin zen.



GURE HAURRAK ERE BADIRA EKIMENA

Bi Ikastolek bat egin zuten *Gure haurrak ere badira* mugimendu sozialarekin eta arduradunek prentsaurrekoa eman zuten ordu arte egindakoa baloratuz. Bi Ikastoletan urriko ostegunetan elkarteratzeak aurrera eramane, kamisetan salmentan lagundu eta Bilbon egin zen mobilizazioarako aukerak erraztu genituen.

Horren harira, Irurako Ikastolak azaroaren 20an Haur eta Nerabeen eskubideak aldarrikatzeko lanketa ezberdinak burutu zituen geletan.



HEZKUNTZA SAILARI SINATUTAKO AKORDIO EZ BETETZEARE AURREAN, MOBILIZAZIOAK

Irurako Ikastolako eta Anoetako Herri Ikastolako langileak ere bailaran antolatutako itxialdiekin bat egin genuen. Hezkuntza Sailarekin 2023an sinatutako akordioa ez direla betetzen ari salatu genuen. Eusko Jaurlaritzak 2023an LAB sindikatuarekin sinatu zuen akordioan jasotako konpromisoak bete daitezela eskatu zen. Horretarako Tolosaldeako Ikastola guztietako langileak Tolosako Dama Berdean bildu ginen egoerari ikusgarritasuna emateko. Ondoren bakoitzak bere ikastolan itxialdia burutu zuen.



HH2koak ATAUNGO BARANDIARAN MUSEOAN

Gustora ibili ziren HH2ko ikasleak Ataungo Barandiaran museora eginiko irteeran. Bertan uraren aprobetxamendua ikusi zuten, errota martxan jartzen zutelarik. Ondoren, zerrategia eta bukatzeko talo tailerra egin zuten. Artoa jasotzen denetik irin bihurtu arteko prozesua ere bertatik ikusteko aukera izan zuten. Azkenik, bakoitzak egindako eta txokolatetz betetako taloa dastatu zuten hamaiketako ederra eginez!



TITIRIJAI 2025

Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen jaialdian, Titirijai-en, izan ginen. LH3tik LH6 bitarteko Anoeta eta Irurako ikastoletako haurrak egun berean egin genuen irteera. Bi emanaldiz gozatzeko aukera izan genuen, "Pintton-pintto" Leidor antzokian eta "La forma de las sombras" Topic-en.

Lehen ikuskizuna euskaraz izan zen bigarrena aldiz, hitzik gabekoa. Ikasleei bi emanaldiak gustatu zitzaizkien, eta eguna lagun artean pasatzeko aukeraz gozatu genuen.



MUTIL GAZTEAK ETA FEMINISMOA



Mutil gazteen erreazionarismoa eta feminismoaren aurkako jarrerak aztergai izan ziren Iruran, Indarkeria Matxistaren Aurkako egitarauaren barruan izandako saioan. Bertan bi ikastoletako profesionalak presente izan ziren. Ikastola ez dago errealitate horretatik kanpo eta saioan bertan azaldutakoak atentzios entzun eta gure eguneroko lanerako baliagarriak nola bihur genitzakeen ez zuten alde batera utzi nahi. Gehiago jakin [Ataria](#)

EUSKARAREN EGUNA BI IKASTOLETAN

Bi ikastola osatzen dugunok, gu-rea den hizkuntzari bultzada tinko emateko asmoz, modu atseginez ekimen ezberdinak aurrera eram genituen. Iruran, bezperan Matxalen Mendizabal eta Mikel Uzkudun izan genituen. Egun berean haurrei zuzendutako jarduerekin bete zen. Familiak eta herritarrek arratsaldeko ekintzetan ere parte hartu eta erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Une politak partekatu genituen bertaratutako guztiekin. Giro ona eta hurbila sortu zen, eta komunitateak euskararekiko duen konpromisoa berriro agerian utzi zuen. Anoetan berriz, ekintzak asko eta anitzak izan ziren egunean zehar: manifestuaren irakurketa; Argitxoen bisita HHn; patioan koreografia, musikariak, hamaketakoa; emanaldia borobilean (antzerkiak, abestiak, moda desfilea, sari banaketak) eta bertan Iker Galartzari elkarrizketa eta Fenix 1123 pelikula DBHn. Tolosaldean egin zen giza **mosaikorako** E eta K hizkiak prestatu ziren.



HITZ ETA JOLAS!

Hitz eta jolas egitasmoak euskarazko album ilustratuak, jolas produktuak eta komikiak biltzen ditu, eta helburu nagusia euskaraz jolasteko eta irakurtzeko plazerra sustatzea da. Bertan sortutako egitasmoa da: bertako artistekin, bertako hornitzaileekin. Gure kultura eta gure balioetan oinarritua.

Eskaintza osoa jasotzen duen katalogoa ere prestatu da: "Oihaneko kriseilua" ipuin-puzzlearekin istorioak, Euskal Herria ezagutzeko 7ak bat karta-jolasa, *Argitxoren mundua kolorez bete!*, "Maurizia. Biziminarek hotsa." Xabiroi komikiaren bilduman bizirik, ...

2025 neguko katalogoa




URTEKO BATZAR OROKORRAK

Abenduaren 16an Anoetako Herri Ikastolako Urteko Batzar Nagusia izan zen eta 17an, Irurako Ikastolako. 2025-2026 ikasturteko proiektu pedagogikoak aurkeztu ziren, balantze ekonomikoak eta datorren ikasturteko aurrekontuak.

ELKARTASUN KUTXA ETA IKASTOLAK-en BATZARRAK

1,1 milioi euroko laguntzak banatu zituen Elkartasun Ikastolen Batzarrak. Ikastolen mugimenduak zazpi ikastola eta proiektu lagundu ditu ikasturte honetan Elkartasun Kutxaren bitartez. Ikastolen komunitatea osatzen dugun guraso eta langileek Ikastolen mugimenduari eta, ondorioz, Euskal Hezkuntza Nazionalari egindako elkartasun-ekarpena da hau.

Ikastolen Elkartearen Batzar Nagusia ere egin zen, eta aurrekontuak eta ikasturteko kudeaketa plana onartu ziren. Guztira 8 milioi euroko aurrekontua izango du Ikastolen Elkarteak ekitaldi honetan.



GABONAK GIROTZEN

Abenduaren azkeneko egunetan, Gabonen aurretik, hainbat ekintza pilatu zitzaizkigun. Iruran, LH6ko ikasleak gelaz gela postal banaketa egin zuten; Ikastolako pasiloak eta gelak girotu zituzten trikitixarekin eta abestiak kantatuz. HHko haurrek Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan zuten **bideoa** eta Anoetako Herri Ikastolako DBH4ko ikasleen txistorra eta hallal ogitar-tekoak dastatu genituen. **bideoa** Anoetan, Ikastola apaindu zen Gabonetako irudiekin; gelen arteko zorion abestiak elkarri abestu; ikasle zaharrenek eskulanak egin ten lagundu txikiei kidezaren bitartez; San Tomas egunean txistorra eta hallalaren banaketa, ... **argazkiak-1** eta **argazkiak-2**



ABENDUAREN 24a, KANTU ESKEAN

Abenduaren 24an, herriko kaleetan ibili ginen kantuan. Irurako LH-koak, Mendiondo bailarara gerturatu ziren. Plazan HH-koekin elkartu zirenean dantza eta kantuan aritu ziren taldea erabat osatu zen bitartean eta segidan ibilbideari ekin zioten. Anoetako DBH-koekin egin zuten ibilbidearen azken tartea. Anoetarrak auzoz auzo ere ibili eta gero herriko plazan bukatu zuten. Iruran, bukaera goxoa emateko, gurasoen laguntzarekin prestatutako ogitar-tekoak dastatu genituen eta Anoetan aldiz, guraso, ikasle, irakasle eta herritarrekin batera abestien saio polita egin genuen.




ISPILUARI BEGIRA

Irurako Ikastolan, LH2ko ikasleek eta fami- liek, UEMAREN eskutik "ispiluari begira" saioa izan zuten. Gelakideen hizkuntzei balorea emateaz gain euskara indartzeko saioa izan zen. Gelako haurren eta fami- lien hizkuntza ohiturak ezagutzeko dinamikak egin zituzten, eta ondoren taldeka egindako lana gurasoei aurkeztu zieten. Gurasoak gelara etorri ziren eta haurren kartelak ikusi eta konpromezuak entzun zituzten. Anoetan martxoan eraman zen aurrera.



ARITUZ BALIABIDE BILDUMA

Oporren aurretik, etxean, fami- li giroan, haurrekin euskaraz jolas- ten-kantatzen, sortzen aritu zitezten, eskura jarri genien **ARITUZ erremintak**, azken eguneraketekin. Erreminta hau sakelekoetan erabiltzeko modukoa da, lotura pasa eta klik egitearekin sartzen baita bertara.



SAHARARAKO KANPAINA

Urtero bezala, Saharara bidaltzeko produktu eta janarien bilketa martxan jarri zen. Horretarako, Iru-rako Ikastola eta Anoetako Herri ikastoletako sar-rreretan ere espazio bat egokitu zen. Urtean behin, “euskal karabana” izenburu-
pean Euskal Herritik saharar errefuxiatu kanpamentue-
tara laguntza humanitarioz
betetako kamioiak bidaltzen
dira: arroza, pasta, lekaleak,
azukrea, atuna eta sardinak
latan, konpresak eta pardelak,
eskolako materiala...



MATRIKULAZIO KANPAINA ETA ATE IREKIAK



2025-2026 ikasturterako matrikulazi-
kanpaina otsailaren 2tik 13ra izanik,
bi ikastoletan ate irekiak antolatu
ziren proiektu eta gune ezberdinak
ezagutzeko. Urtarrilaren 24an, la-
runbatean Iru-rako Ikastolako ate
irekiak izan ziren. Famili eta ikasle
berriei harrera egin eta ikastolaren
inguruko informazio orokorra eskai-
ni zitzaien. Segidan bisita gidatua
izan zen. Lau familia etorri ziren eta
giro lasaian eman ziren azalpenak.

Anoetako Herri ikastolan, urtarrilaren 26an Iru-
rako LH6ko familia eta 27an 2 urteko familien-
tzat. DBH1erako Ate Irekiak urtarrilaren 28an

ERO ETXE-KO KROSA 2026

Urtarrilaren 18an ospatu zen XXXVII.
edizioa. Tolosaldea bailarako ikaste-
txe ezberdinetako benjamin, alebin
eta infantilek parte hartu zuten kros
horretan. Iru-rako Ikastolatik 16 parte-
hartzaile izan ziren, eta Anoetako He-
rri Ikastolatik 50 ikasle animatu ziren.



MANIFESTALDIA, BAXOA EUSKARAZ

Bi ikastolek bat egin genuen urtarrilaren 24an, 15:00etan, Baionako Xaho Kaian, “Baxoa Euskaraz” manifestazioarekin, non euskara eta gure eskubideen aldeko aldarrikapenak egin ziren. Baxoa euskaraz egiteko eskubidea arriskuan dagoenez, Ikastolen komunitatearen presentzia ezinbestekoa izan zen.

ESKI IRTEERAN, BI IKASTOLETAKOAK ELKARREKIN

Iru-rako Ikastolako LH6ko ikasleak eta Ano-
etako Herri Ikastolako LH6tik DBH4 bitartekoak
Aretten izan ziren. Bidean elur dezente topatu
arren, larunbatean eskiatzeko aukera izan zuten
eta ederki aprobetxatu zuten aukera. Igandean
ere, garaiz mugitu ziren goiza ahalik eta gehien
aprobetxatzeko. [Argazkiak](#)



IÑAUTERIAK

IRURAKO JAIALDIA

Otsailaren 10ean Irurako Ikastolak, Iñauteri jaialdia egin zuen herrko frontoian. Aurten, munduko hizkuntza gutxituei eman nahi izan zitzaizkien ikusgarritasuna eta ikasleek beste herrialdeetako hizkuntza eta zibilizazioen inguruan gehiago jakiteko ere aukera izan zuten. Bertako abesti, jantzi eta bitxikeriak ikasteko aukera bikaina izan zen.

Aurten lehen aldiz, saioa 18:30ean hasi zen eta ikasleek positiboki baloratu zuten aldaketa hau. Bi saski eder ere zozketatu ziren Irurako urdaitegiak eta Angulas Aginagaren laguntzari esker.



ANOETAKO JAIALDIA

Ohikoa den jaialdia izan zen asteazkenez, Ostegun Gizenaren bezperan, iluntzean herriko kiroldegian. Jendez bete ziren harmailak eta Iñauteri giroa nabarmendu zen. Aurtengo emankizunaren gaia Euskal tribiala izan genuen eta ziklo bakoitzak gai baten bueltan galdera bota eta erantzunarekin zer ikusia zuen antzezpena eta koreografia aurrera eraman zuen..

Argazkiak



SANTA AGEDA

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatu genuen Anoeta eta Irurako Ikastoletan. Aurten, Anoetako Herri Ikastolako ikasleak goizez ibili ziren herriko kaleetan zehar. Irurakoek aldiz, arratsaldeko tradizioarekin jarraitu zuten. Makilen erritmora, koplak zahar eta berriak entzun ahal izan ziren bi herrietan. Guraso eta herritarrek gerturatzeko gonbitea ere zabalik izan zuten ibilbidean zehar.

[Argazkiak](#)



OSTEGUN GIZEN

Otsailaren 12an, Ostegun Gizen eguna ospatu genuen bi Ikastoletan. Iruran, urtero bezala, mo-zorrotuta etortzeko gonbitea zabaldu zen ikasle eta irakasleen artean. Jolasean aritu eta gero, librean ibili ziren eta ondoren Anoetako DBH4ko ikasleek prestatutako ogitartekoak jan zituzten.. 12:00etan geletan Tolosako iñauterietako txupina ikusi zen eta denok batera txarangaren erritmora salto egin zuten..



MATRIKULAZIO KANPAINA

2026-2027 ikasturterako matrikulazio kanpaina zabalik izan zen otsailaren 2tik 13ra bitarte. Ate irekietara gerturatutako familiek, Irura eta Anoetako Ikastolan aurrematrikulatzeko hautua egin zuten eta gure espektatibak bete egin ziren. Epez kanpo bada ere, gu ezagutzera etortzeko gonbitea luzatu genien familiei.



ZIRIMOLAREN AISIALDIAREN UDAKO ESKAINTZA

Zirimola Ikastolen aisialdi taldeak uda honetarako euskarazko aisialdi eskaintza zabalago eta bidezkoagoa aurkeztu zuen otsailean, plaza gehiago eskainiz eta beka sistema propioa lehen aldiz martxan jarri. Zirimolaren udako egitasmoetan programazio osoa euskaraz garatzen da, aisialdi hezitzaile, inklusibo eta euskalduna bermatzeko. Zirimolak beka sistema propioa jarri zuen martxan. Lehen urte honetan 50 plaza zaurgarritasun egoeran dauden haur eta gaztetxoentzat gorde zituen.



EA2030 ekintza plana, "Hiri eta Komunitate Jasangarriak"

"Hiri eta Komunitate Jasangarriak" landuz ibili gara azken bi urte hauetan. Esku hartze plana burutzeko asmoz "Oinez Hobe" Iruran eta "Lagunak Oinez" kanpainak jarri ditugu martxan. Iruran LH5 eta 6ko ikasleek esku orri batzuk sortu zituzten eta herritarren artean banatu, oinez ibiltzeak dituen onurak bergogoratu. LH 1, 2, 3 eta 4koek aldiz, kartelak prestatu eta txikienek, berriz, bizikletak, patineteak, oinak... margotu zituzten eta Ikastolako sarreran ikusgai jarri zituzten.



Anoetan, HH3tik LH4ra bitarteko ikasleei helduen gidaritzapean etxetik Ikastolara bidea elkarrekin egin ahal izatea eskaini genien baina beharra ez zegoela ikusirik, LH5etik DBH2ra bitarte ustezko kanpainan hori aurrera eramateko beharrezko lanketak egin ziren. Hormirudiak ere sarreran jarri ziren. Udalak KUKU parkea zabaltzeak ere lagundu zuen mugikortasunean.



ERRIGORA, EGUBERRIKO KANPAINA Eskutik eskura



Otsailaren 26tik martxoaren 18ra arte izan zen Nafarroa hegoaldeko produktuak eskuratzeko eta baita bertako eus-kalgintza ere laguntzeko aukera. Iazkoan bezala, aurten ere produktu mordoak eskaini ziren Errigorarekin: Oliba olio birjina, ardoa, zainzuriak, babarrunak, arroza, orburuak.... Hizkuntzak egiten gaituen bezala, kontsumitzeko erak ere egiten gaituelako herri.

MARTXOAREN 8a, EMAKUMEAREN EGUNA

Ikasturte honetan Martxoak 8, igandea izanik, bi Ikastoletan aldarrikapen eguna asteen zehar kokatu genuen, modu batez edo bestez etapa ezberdinetan berariazko lanketa eginez. Iruran denen artean eta elkarri lagunduz, pultsera moreak egin zituzten, LH4-5-6koek kartelak eta HHkoek prestatutako eskuekin apaindu ziren. Anoetan, "Eman tokia berdintasunari, Jarrai dezagun emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen"; Emakunderen leloari jarraiki Ikastolan lanketak egin ziren etapa guztietan.



LHko KIDETZEA IRTEERAK

Martxoan, Anoetako eta Irurako Ikastole-
tako Lehen Hezkuntzako ikasleak elkarre-
kin irteera ezberdinak burutu zituzten. Mai-
la bakoitzak bere irteera izan arren, batzuk
egun berean izan ziren.

LH1, 4 eta 6koak Kutxa Espaziora joan ziren.
Denek espazioa librea ikusi bazuten ere
bakoitzak gai ezberdina landu zuen, ura,
robotika, matematikak,... LH2 eta 5, Do-
nostiako arrantzaleen kofradian izan ziren.
Batziek museoa bisitatu zuten eta besteek
arrantza saioa izan zuten. LH3koak aldiz,
Pagoetara egin zuten bisita.





HH2/3koak IKASLEAK ELKARREKIN

Martxoaren 24an goizean, bi Ikastoletako HH2 eta HH3ko ikasleak Irurako Ikastolan elkartu ziren. Bertan, elkar ezagutu eta Irurako Ikastola bisitatzeko aukera izan zuten. HHko eremua ezagutu eta denok batera primeran ibili ziren elkarrekin jolasean. Ondoren patioan hamaiketako egin eta jolasean ibili ziren. Goiz atsegina izan zuten.

KORRIKA TXIKIA

Martxoaren 23 arratsaldean KORRIKA TXIKIA 2026 ospatu genuen. Irura eta Anoetako Ikastoletako ikasleek eskuz-esku eraman zuten lekukoa bi herrietako kaleetan zehar. Ederki entzun zen *EUSKARA GARA* leloa iskin guztietan.

Irurako Ikastolan eman zitzaion hasiera eta ikasle zaharrenek hartu zuten lehenik lekukoa. Pirritx izan genuen ibilibidea girotzen. Aurrera egin ahala, geletako ordezkarien eskuetatik pasa zen aurtengo mezua, baita ikastolako txikienetatik ere. Guraso, herritar eta ikasleen artean girotu zuten arratsaldea. Ondoren, plazan, lekukoaren barruko mezua irakurri zen. [Korrika Txikia Anoeta](#)



GURE HAURRAK ERE BADIRA

Urrian abiatu zen *Gure haurrak ere badira* ekimenak oihartzun handia izan du Euskal Herrian, eta azken bultzada bat eman nahi izan zioten sustatzaileek: eskuragarri zeuden kamisetak agortuz, eta elkartasun-ekarpena handitzen jarraituz. Elkartasun keinu txikiek ere eragin handia izan dezaketelako. Bi ikastolok bat egin genuen asmo horrekin.



ATZERAPAUSORIK EZ!

Nafarroako Hezkuntza Sailak 7 ikastolari Haur Hezkuntzako itunak ukatu edo murriztea erabaki zuen datozen 4 urteetarako. Departamentuak irizpideak aldatzea erabaki zuen, alde bakarrez eta arbitrarioki. Azken 50 urteetan Nafarroako Gobernuak ikastolen aurka hartu duen erabakirik gogorrena errealitate bihurtuz. Horren aurrean, ikastolek gure esku zegoen guztia egin genuen, erabaki hau bertan behera geratu zedin eta atzerapauso hor departamentuak eman ez zezan.



OPORREN OSTEKO PROBENTZIOA

Aste Santuko oporraldien ondoren, gelaratzea tokatu zen apirila erdian. Gustura elkartu ziren ikasleak elkar ikusi gabeko egunen ondoren. Bi ikastoletan goizeko lehen orduetan HHn familiarizaziori eman zitzaien garrantzia. LHn aldiz, probentzio saioak izan zituzten. Iruran 1. ziklokoak txokoetan banatuta; 2. ziklokoak berriz, sukaldaritzan eta Kahoot-en aritu ziren. Anoetan goizeko lehenengo bi orduetan batez ere aritu ziren taldeko dinamikak egiten maila guztietan.



ERRIGORA, UDABERRIKO KANPAINA

Maiatzaren hasieran banatu ziren udaberriko kanpainan egindako eskaerak. Irurako eta Anoetako ikastolak banaketa-puntu direnez, bertan jaso zituzten herritarrek, gurasoek eta langileek euren eskaerak.



EUSFERA

Maiatzaren 7tik 17ra bitartean ospatu zen ekimena. Gure haurren ingurunea euskaldunagoa izatea nahi duten familiei zuzendua zegoen, 0-12 urte bitarteko gurasoentzat bereziki sortua.

Haur eta gaztetxoek eguneroko bizitzan euskararen presentzia handitzea du helburu. Ekimen horrek, bai ikastolan, bai ikastolaz kanpoko esparruetan, euskararen erabilera bultzatu nahi zuen, giro parte-hartzaile eta motibatzailean.

Hortaz, familiei bertan parte hartzera gonbidatu zitzairen. Iruran, haurren adina, euskararen ezagutza... kontuan izanda erronka pertsonalizatuak jaso zituzten. Erronka horiek osatzen joan ahala, Ikastolan banatutako pasaportea margotu zuten ikasleek.



IRURA, IKASTOLAREN EGUNA

Maiatzaren 16an Irurako Ikastolaren Eguna ospatu genuen. Eguraldia zela eta, aurtengoa frontoian egin genuen.

Goizeko 11:00etan elkartu ginen ikasleak, gurasoak eta irakasleak, denok herri-kiroletako jolas ezberdinetan parte hartzeko prest. Giro polita sortu zen, eta elkar animatzeko une ederrak ere izan ziren. Ondoren, 2 urteko gelako ikasleen ongietorria eta LH6ko ikasleen agurra egin ziren. Irakasleen dantzak eta LH6ko gurasoen bertsoek osatu zuten une hunkigarri hura.

Bazkari garaian, paella bikaina izan genuen, oilaskoa eta izozkia lagun. Aurten ere mariskadaren zozketa, LH5eko eta LH6ko ikasleen bertso-saioa eta bingo musikala izan genituen. Kafea lasai hartu ondoren, DJ Bullen txanda iritsi zen. Musikaz girotu zuen frontoia eta, bide batez, tailerrei hasiera eman zitzairen. Sormen-tailerrean egindako lumekin tximeleta zoragarri bat osatu zen. Henna bidezko tatuajeek eta aurpegi-margoketek ere arrakasta handia izan zuten.



Eskerrik asko, egun bikaina izan zedin lagundu zuten boluntario guztioi.



Maiatzaren 18an, haurrei pasaportea Ikastolara ekartzeko gonbidapena egin zitzairen eta osatu zutenei EUSKARA txapa banatu zitzairen.



Zaintza / Otekeria / 30%
Maiatzeko Ikastola / Anoetako Ikastola

HERRI URRATS



Udaberriarekin batera, Ikastolen aldeko jaiak hasi ziren. Beti bezala, egutegian lehena, HERRI URRATS. Maiatzaren 10ean ospatu zen Senperen. Bi Ikastoletan, familiak Herri Urratsera joan zitezten, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako autobusetan izena ematera animatu genituen.



2 URTEKOAK MONKEY PARKEAN IZAN DIRA



Ostiralean, maiatzak 29, Anoeta eta Irurako 2 urteko gelako ikasleak Monkey Parkera joan ziren autobusez. Neurri guztietako txirristetan, gordeleku ezberdinetan, pistinetan... Primeran ibili ziren denak elkarrekin, goiza zoragarria pasatuz!



UDAL FOROAK



Eskola Agenda 2030 barruan, ikasturte amaierako Udal foroak ospatu ziren. Bertan, bi Ikastoletako LH eta DBHko ekoliderrez gain alkateak, ingurumen teknikariak, Tolosaldeako Ingurumen-arduraduna eta Izaskun Gaztañaga eta Argiloa Ceberio ikastoletako EA2030 arduradunak elkartu ziren.

Azken bi urteetan landu dugun "Hiri eta komunitate jasangarriak" gaiarekin lotutako ekintza plana aurkeztu zuten. Ondoren, ekintzetatik bildutako ondorio eta proposamenak ere azaldu zituzten. Herriko arduradunek kontuan hartu zituzten hauren eskaerak.



ANOETAKO HERRI IKASTOLAREN EGUNA

Maiatzaren 24an Anoetako Herri Ikastolaren Eguna gurasook, langileok, irakasleok eta ikasleok denok batera gure jaia ospatuko genuen. Aurten berrikuntzak izan ziren: familia berriei ongi-etorria, bazkaria Ikastolaren gunean, arroz eta oilaskoen (halal) plater bakarrarekin eta Ikastolak berak ateratako arropa eta bes-telakoen salmenta. Aurrekoetz gain, erakusketak, kalejira, txikien emanaldia, mendi ibilaldia, bingoa, arratsaldeko jolasak ere izan ziren. Giro aparta izan zen nagusi eta denok primeran pasa genuen.



32



33

Zubitxo urtekaria 2025/26
Irurako Ikastola / Anoetako Herri Ikastola



TOLOSALDEKO ESKOLARTEKO OLINPIADAK

Tolosako Berazubi estadioak askotariko kirolen finalak hartu zituen larunbatean, maiatzak 30, berdeguneari kolorea eta kiroltasuna emanez. Bi ikastoletako hainbat talde bertaratu ziren probalekura eta oso goiza atseginaren denok elkarrekin igaro zuten. Hasieran desfilea eta gero hainbat eta hainbat kiroltako finalak izan ziren.




SO JAI SO TONTOR

Aurten, Kilometroak 2026 Lazkaon izango dira eta Kilometroak jaiaren 50. urteurrena ospatu ere bai. Lehenengo Kilometroak 1977an egin zuten Beasain eta Lazkaoko ikastolek. Honen harira, "50 JAI, 50 TONTOR" ekimena antolatu zuten, eta Gipuzkoako Ikastola guztien artean 50 tontor edo mendi egitera animatu gintuzten. Guk gure aletxoia ere jarri nahi izan genuen. Hemen argazkiak.



BERTSOLARIEN EMANALDIA IKASTURTEARI AMAIERA EMATEKO

Ikasturtean zehar bertsolaritzaren lanketari, Oihana Iguaran eta Beñat Gaztelumendi bertsolarien laguntzarekin eta Amaia Agirreren gidaritzapean, LH5 eta 6ko ikasleek bukaera atsegina eta dibertigarria eman diote.



IKASTURTE AMAIERAKO KIDETZEAK

Ikasturte amaieran HHko eta LHko etapen arteko kideak eman dira. Eguraldiagatik HHkoek ezin izan zuten Hernialdera joan. LHkoak aldiz, mailaka ekainaren hasierako bi asteetan elkartu ziren, Ikasleen arteko harremanak sendotzeko eta elkarrekin jolasean aritzeko. Bi herrietako plazak hurrez bete ziren egun horietan, oso modu alaian.



Anoetako Herri Ikastolan, maiatzaren 24an, Ikastolaren Egunaren barruan, DBH4ko ikasleei agur goxoa eskaini genien. Irakasle eta familiek osatutako bertso, argazki, aurreku eta banakako mezuekin patioan ekitaldia aurrera eraman genuen.

LH6 eta DBH4koen AGURRA



BAKOITZAK BERE KABIAN EGIN
ETA GERO HASIERA

JAKINMIN ETA ERDI BELDURTI
HELDU DBH BATERA

BAINA GEROZTIK LAU URTE PASA
GAU ETA EGUN BATERA

SALOUEN ERE EDERKI ASKO
GORABEHERAK-GORABEHERA

KOSTATA BAINA BEHINGOZ HELDU DA
IKASTURTE BUKAERA

Irurako Ikastolan, ekainaren 19an, ikastolaren azken egunean, 2014ko belaunaldia agurtu genuen. Ikastolako ikasle eta langileok patioan bildu ginen emanaldi xume batean. Tutorearen hitz goxoen ostean, Ikastolako langileek bertsoa abestu zieten eta urte hauetako argazki bilduma oparitu zitzaion. Besarkada, irri, urduritasun eta malkoen artean eman genion amaiera 2025-2026 ikasturteari.



SEIGARREN MAILA AMAITU BERRI
ZUEN AGURRA HELDU DA

LEHENAGO ERE BESTE ASKORI
ESAN GENIEN MODURA

BARRUAN GORDE, EZ AHAZTU INOIZ
IRURAREKIN LOTURA

AMETSEN BILA ZABILTZATELA
IZAN ARREN HAINBAT MUGA

AUSARTAK IZAN TA EGIN HEGAN
IKASTOLATIK MUNDURA.

DOINUA: Benitoren "Itsasoari begira"



Zubitxo
urtekarria
2025/26